

# Agora

Gure hirien hirigintza-etorkizuna.

Donostia eta Donostialdea.

Ikuspegiak



TABACALERA  
2005EKO MAIATZAK 19 ETA 20

**TOKI MUGATUAK**

*(Entzun arren)*

[estrategia@donostiafutura.net](mailto:estrategia@donostiafutura.net)

Tel.: +34 943 428 086

ESCUELA TECNICA SUPERIOR  
ARQUITECTURA SAN SEBASTIAN



UNIVERSIDAD  
del País Vasco

DONOSTIAKO ARKITEKTURA  
GOI ESKOLA TEKNIKOA

Unibertsitatea  
Euzko Herriko



## ANTOLATZAI LEAK:

ESCUELA TECNICA SUPERIOR  
ARQUITECTURA SAN SEBASTIAN



UNIVERSIDAD  
del País Vasco

DONOSTIAKO ARKITEKTURA  
GOI ESKOLA TEKNIKOA

Unibertsitatea  
Euzko Herriko



## BABESLEAK:



Departamento de Ordenación  
del Territorio y Medio Ambiente



## LAGUNTZAI LEAK:



CICC

CENTRO INTERNACIONAL DE CULTURA CONTEMPORÁNEA  
KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO GUNEA

## AGORA

Gure hirien hirigintza-etorkizuna.

Donostia eta Donostialdea. Ikuspegiak

Donostiako Plan Estrategikoaren baitan hainbat eztabaida planteatu ziren, hiri-esparruari buruzkoak, alde batetik, eta Hiriaren inguruko elkarrizketa iraunkorrarekin jarraitzeko beharrari buruzkoak, bestetik. Honenbestez, arlo honekin erlazionaturiko Helburuak zera adierazten zuen: *“Gaur egun, hiri-esparruen kalitatea guztiz lotuta dago iraunkortasunaren kontzeptuarekin, eta ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-politikak integratu eta orekatzea da helburua. Etxebizitzaren arazoak eta erabilgarria den lurzoru eskasiak hiri-garapen trinkoen alde egitera bultzatzen dute, hazkunde sakabanatu edo zehaztugabeen aldean. Izan ere, hiri-garapen trinkoek beste arlo batzuetan “hazkunde” iraunkorra egitea ahalbidetzen dute (mugikortasuna/garraioa, azpiegituren aprobetxamendua, gizarte- eta hiri-harremanak, etab.). Ikuspegi honetan oinarritu beharko lirateke bai jarduera berriak, bai dagoeneko finkatuta dauden esparruetan egiten direnak. Hots, lehendik dugun hiriaren ganean hiria sortzen jakitean datza”.*

Honez gain, A.2.3. Estrategian zera azpimarratzen zen, oso garrantzizkoa dela *“Tresnak sortzea, hiritarrek eta hiriaren garapen eta diseinuari buruzko eztabaidan adituenak diren agenteek inplikatu eta parte har dezaten, eta euren adosturiko irizpideak kontuan har daitezten. Aipatu tresnek, bestalde, helburuak argitzen lagunduko dute hiriko hirigintza-politikatan, eta aipatu politiken kudeaketa erraz, moderno eta dinamikoa ahalbidetuko dute”.*

Eztabaida-esparrua sortzeko beharra Agoran islatzen da. Izan ere, Hirian eta bere Hiri-Komunitatea den Donostialdean hiri-esparruari buruzko eztabaida sustatzeko proiektua da Agora. Asmoa zera da, Agora gogoeta teorikoa burutzeko elkargune bihurtzea, gogoeta hori gure hiri-errealitatean kokatuz, eta nolabaiteko aldizkakotasunarekin egitea.

Elkargune gisa, Agorak harremana estutu nahi du unibertsitatearekin eta hiri-esparruaren inguruan lan egiten duten sektoreekin (arkitektoak, hirigileak, paisajistak, soziologoak, sustatzaileak, hiritarrak, etab.), hiriko hiri-esparruaren funtzionamenduari buruzko jakintzan sakonduz eta izaera irekia izanik, bai sustapenean, bai antolaketan. Gai honekin erlazionaturiko erakunde gehienek parte-hartzea lortu nahi da, eta araupetu gabeko formatua erabiltzea da asmoa (eztabaidak, erakusketak, zinema, elkartzeko ludikoak, etab.). Honez gain, Unibertsitatearen inplikazio berezia lortu nahi da, Donostiako Plan Orokorrari buruzko eztabaida burutzen ari den urte honetan, zehazki.

2005eko maiatzaren 19 eta 20an egingo da, eta etorkizunean beste ekitaldi batzuekin jarraitzea da asmoa. Aurtengo eztabaidan ondorengo alderdiak hartuko dira kontuan: iraunkortasuna, hiri-diseinua berritzeko beharra, eta azpiegitura kulturalak duten garrantzia, bai garapen sozial eta ekonomikorako, bai eta Hiria suspertzeko ere.

## EKITALDIAREN EGITURA

Ekitaldi heterogeneo eta diziplina anitzekoa izango da, eta izaera ezberdineko erakundeek hartuko dute parte; beraz, ondorengo egitura izango du:

**Proiektuen zona: Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko (EHU)** ikasleen karrera-amaierako proiektuen erakusketa.

**Hiria iruditan:** Iragana eta Etorkizuna. Donostiako eta inguruko irudien proiektzioa. Bai iraganeko irudiak (**Kutxaren Fototekak** utzitakoak), bai eta gaur egungo eta etorkizuneko irudiak ere (**Donostiako Udalak** utzitakoak).

**Proiektzioen zona:** Eztabaida eta hitzaldi nagusiekin batera, zona jakin batean **Euskal Filmotekak** utzitako filma eskainiko da. Bertan, 1920 eta 1930 urte arteko Donostiako irudiak ikus ahal izango dira zuri-beltzean.

**Txosten eta eztabaida-mahaien zona:** Bi jardunalditan, Espazio Publikoaren gaia aztertuko da lau ikuspegi ezberdinetatik (lurraldea, ekonomia, iraunkortasuna eta soziologia).

## AGORA

### Gure hirien hirigintza-etorkizuna. Donostia eta Donostialdea. Ikuspegiak

#### PROGRAMA

**Egunak:** 2005eko maiatzak 19-20

**Lekua:** Tabacalera (Donostia)


#### 2005EKO MAIATZAK 19, OSTEGUNA

09.30 Aurkezpena. Autoritateen ongietorria

10.00 Hiri-erronkak gaur egungo hiri-eremuan

**Txostengilea:** Jose M<sup>a</sup> Ezquiaga: Doktorea arkitekturan, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoaren Doktoratuaren Aparteko Sariduna, eta Soziologian eta Politika-Zientzian Lizentziatua da Madrilgo Complutense Unibertsitatean. Gaur egun Hirigintza Irakasle Titularra da Madrilgo Arkitekturako Goi Eskola Teknikoan, eta unibertsitate ezberdinetan irakasle gisa egindako ibilbide luzeari esker lortu du aipatu kargua. Honez gain, jarduera praktiko ugari egin du bai arkitekto gisa, bai aholkulari gisa: hiri ezberdinen antolamendurako planak egin ditu, alde batetik, eta Lurralde-Antolamenduari buruzko Terra, Redes de Cooperación Europar Programa eta URBAL Programaren 4. Sarea antolatu ditu, bestetik.

11.00 **Kafea**



## 11.30 **Ikuspegia Donostian eta Donostiatik: Donostiako Plan Orokorraren Bulegoa.**

Eztabaidak eta parte-hartzeak Donostian eta bere eragin-eremuan kokatuko dute hiriaren hirigintza-etorkizunari buruzko gogoeta. Donostiaren egoera orokorrari buruzko Plan Orokorraren ikuspegia hartzean datza.

Eztabaida-mahaia, ondorengo erakunde eta organizazioen parte-hartzearekin:

Moderatzailea: Kepa Korta  
(Donostiako Plan Estrategikoa)

- Antón Pagola (Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala)
- Javier Salazar (EHUko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa)
- Jorge Letamendia (Donostiako Udala)
- Jesús M<sup>a</sup> Erquicia (Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila)
- Javier Gómez Piñeiro (Katedradun Deustoko Unibertsitatea)

Helburua zera da, Hiriaren hirigintza-etorkizunari buruzko ikuspegi ezberdinen arteko eztabaida sortzea. Altuerako eraikuntza? Non? Garapenak hiri-esparru finkatuetan? Auzoak berritzea (Altza, Martutene, Loiola, ...)? Lurzorua ekonomia-jardueratarako? Metropoliaren laguntza.

## 14.00 **Etena**

## 16.00 **Zabalgunearen lezioa eta egungo hiri-prozesuak**

**Txostengilea: Ángel Martín:** arkitekto hau hirigintza arloan jardun da Euskadin, batez ere, eta baita Euskaditik kanpo ere. Esparru ezberdinetan egin du lan, ikerketa eta proiektuak barne, eta sari ugari jaso du horri esker. Urbanistika eta Lurralde Antolamendu Irakasle titularra da Bartzelonako Arkitekturako Goi Eskola Teknikoan (UPC) 1998 urteaz geroztik. Bere argitalpen eta artikuluen artean, ondorengoak aipa daitezke: "Futuro urbanístico para la comarca de San Sebastián" (Iankidetza, Donostia, 1980), "La construcción de Tolosa" (Bilbo, 1993), "Lo urbano en 20 autores contemporáneos" (Barcelona, 2004), "Los orígenes del ensanche Cortázar de San Sebastián" (Bartzelona, 2004)

17.00 **Kafea**

17.30 **Berrikuntza hiri-ingurune finkatuetan**

Eztabaida-mahaia ondorengo erakunde eta organizazioen parte-hartzearekin:

Moderatzailea: Mitxel Ezquiaga. Kazetaria

- Asier Acuriola (Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala)
- Jose M<sup>a</sup> Alkorta Azkue (EHUko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa)
- Donostiako Udala
- Iñaki Ormazabal (Pasaia)

Sagües? Kirol-portua? Pasaia Badia? San Martin?, .....

20.00 **Amaiera**

## 2005EKO MAIATZAK 20, OSTIRALA

### 10.00 Hiri Trinkoa - Hiri Zehaztugabea, iraunkortasunean oinarritutako ikuspegia

**Txostengilea: Salvador Rueda:** Biologia eta Psikologian Lizentziatua da, eta bere jakintza ekologia eta iraunkortasunaren esparruan aplikatu du, Bartzelonako Ekologiaren Tokiko Agentziako Zuzendari izatera iritsiz. Honez gain, Ciutat Vella Berpizteko Programaren koordinazioan hartu du parte. Bere lanen artean, ondorengoak aipa daitezke: "La Ciudad Sostenible Resumen y Conclusiones" (1997), "Habitabilidad y Calidad de Vida" (1997), "La Ciudad compacta y diversa frente a la conurbación difusa" (1997), "Ecología Urbana (1995)", "Barcelona, ciudad mediterránea, compacta y compleja. Una visión de futuro más sostenible" (2003).

### 11.30 **Kafea**

### 12.00 Hiri-proiektu handiak kudeatu eta garatzeko tresnak. Kultura-proiektuek Hiriaren garapenean duten eragina.

**Txostengilea: Pablo Otaola:** Bilbao Ría 2000 elkarte publikoaren zuzendari izan zen. Erakunde guztiek osatzen dute aipatu elkarte, eta Bilboko eta bere eragin-eremuko hirigintza-proiektuen kudeaketaz arduratzen da. Honez gain, Arte Garaikideko Valentziako Institutuko Zuzendariorde izan zen Pablo Otaola. Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniari hau Zorrozaurre Master Plana gauzatuko duen Komisioko Zuzendaria da. Asmo handiko proiektu honen helburua zera da, Bilboko sarreran dagoen 800.000 m2 industria-lur berriztatzea.

Eztabaida-mahaia ondorengo erakunde eta organizazioen parte-hartzearekin:

Moderatzailea: Luisa Etxenike. Idazlea

- Santi Eraso (Arteleku)
- Odón Elorza. Alkatea (Donostiako Udala)
- Antón López de Aberasturi (EHUko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa)
- Guadalupe Echevarria

14.00 **Etena**

16.00 **Hiriaren ikuspegi inklusiboa**

**Txostengilea: Zaida Muxí Martínez:** Buenos Airesen jaiotako arkitekto hau “La arquitectura de la ciudad global” (2004) lanaren egilea da, eta Jordi Borja edo Josep María Montanerren lan eta artikuluen egilekidea da “El espacio público: ciudad y ciudadanía” (2003), “Reflexiones en torno a la vivienda mínima” (2004), “Arquitectura catalana re-enfocada” (Arquitectura aldizkaria, 331. zenb. COAM), “Urbanismo tardo racionalista” (Arquitextos, 13. zenb. Ricardo Palma arkitektura eta hirigintza Fakultatearen Aldizkaria. Lima, Peru...). Jose María Montanerren Bazkide eta kolaboratzailea da, eta bere arkitektura estudioan burutzen duen jarduerarekin osatzen du hezkuntza arloan egiten duen lana. Honez gain, Urban Technology Consulting-en kolaboratzen du (Jordi Borja da bertako zuzendaria) eta Emakumearen Kataluniar Institutuan hartzen du parte (Hirigintza eta Eguneroko Bizitzan aditua da).

Eztabaida-mahaia ondorengo erakunde eta organizazioen parte-hartzearekin:

Moderatzailea: Mikel Iriondo  
(Donostiako Plan Orokarraren bulegoa)

- Abdoulaye Gueye
- Gurutze Fariñas
- Xabier Rubio
- Juana Aranguren
- Gazteak

18. 30 **Amaiera**